

TONBOLA

2026KO EDIZIOA

BIZITZAK ALDATZEN DITUEN TRADIZIO SOLIDARIOA

2026ko maiatzaren 30etik uztailaren 14ra.
Konstituzio plaza, Baluarteren ondoan.

 **Cáritas**
Diocesana de
Pamplona - Tudela

AURKIBIDEA

Zer da Tonbola?	3
Nola funtzionatzen du?	4
Tonbolaren arima: pertsonak	5
Informazio erabilgarria	6
Sariak	7-9
Zozketak	10
Lege-oinarriak	10-19

ZER DA TONBOLA?

Duela **81 urtetik** hona, Caritasek kolorez eta elkartasunez betetzen du Iruñeko erdigunea, tonbola solidario bat instalatuz.

Tradizioa baino gehiago, **gizartea eraldatzeko motorra** da. Urtero saldutako txartelei eta antolakuntzarekin lortutako irabaziei **esker**, Nafarroa osoan kalteberatasun egoeran dauden milaka pertsoneri lagun diezaieke Caritasek.

Parte hartzen duen pertsona bakoitzari esker, etorkizun hobe ehuntzen da barne hartzen eta laguntzen ditugun pertsonentzat.

ZERGATIK DA TONBOLA HAIN BEREZIA ETA MAITEA?

420.000 sari zuzen, besteak beste, autoak, esperientziak, teknologia... eta askoz gehiago!

150 pertsona boluntario baino gehiagoren inplikazioa.

Alaitasun partekatuko gune bat, non txartel bakoitza etorkizun hobe baterako urratsa den.

Zure txartela benetako elkartasun-kate baten parte da. Ez da irabazten duguna bakarrik, ematen duguna baizik!

2025EAN 10.861 PERTSONA IZAN ZIREN ONURADUN

CARITASEN LANA
SAKONAGO EZAGUTU HEMEN



NOLA FUNZIONATZEN DU?

2026ko Tonbolarako **2.800.000 txartel** inprimatu dira, hiru motatakoak:

420.000 txartel zuzeneko sariekin:

Momentuan! Zure txartelak sari bat badu, berehala jasoko duzu.

700.000 txartel 'reúna' hitzarekin:

Hitz hori duten txartelak bildu eta 5, 10 edo 20 txartel biltzen badituzu, sari bereziengatik truka ditzakezu.

1.680.000 txartel zozketarako zenbakiarekin:

Zure zenbakiarekin ostiraletan zozketatutako sarietako bat irabaz dezakezu.

Txartelaren prezioa **euro batekoa** da. Salmahaian eros ditzakezu txartelarekin edo eskudirutan ordainduta.

Baina gogoratu ez duzula irabazteko jokatzeko, Caritasen proiektuei benetako laguntza emateko baizik, eta entrega horretan beti dagoela zerbait bueltan: mundu justuagoa, batuagoa, gizatiaragoa.

TONBOLAREN ARIMA: PERTSONAK

Urtero, **150 boluntariok baino gehiagok** egiten dute posible tonbola hau. Tonbolaren energia, hurbiltasuna eta konpromisoa dira **proiektuaren bihotza**. Gazteak, adinekoak, edozein eratako pertsonak hitzordu solidario honen protagonista bihurtzen dira.

Gainera, Tonbolak aurrera egiten du, bere jasangarritasun-planean jasotako neurriak barne hartuta, pertsonekin, komunitatearekin eta ingurunearekin gero eta arduratsuagoa den ekimen bat eraikitzeko konpromisoa izanda.

NAHI DUZU GUREKIN BAT EGIN?

Beti dago beste irribarre baterako lekua! Galdetu informazio-mahaian edo idatzi helbide honetara: gestionpersonas@caritaspamplona.org

INFORMAZIO ERABILGARRIA

EGUNAK

2026ko maiatzaren 30etik
uztailaren 14ra.

KOKAPENA

Konstituzio plaza,
Baluarteren ondoan.

ORDUTEGIA

- Astelehenetik ostiralera:

10:30etik 13:30era eta
17:30etik 20:30era.

- Larunbat eta igandeetan:

10:30etik 14:00etara eta
17:30etik 21:00etara.

- Sanferminetako ordutegia:

Goizez: 10:30etik 14:30era.

Arratsaldez: 18:00etatik
00:30era
(ordutegia luzatzen da).

TXARTELAREN PREZIOA: 1€

Txartelak 2026ko abuztuaren
14an iraugiko dira.

ZARIAK BILTZEA

-Sariak biltzeko ordutegia
uztailaren 17tik aurrera:

Astelehenetik ostiralera:
09:30etik 13:30era.

Asteazkenetan, arratsaldez:
18:00etatik 19:30era
(berrikuntza).

SARIAK

Begira zenbat gauza tokatu ahal
zaizkizun Tonbola honetan!

Sariak **edozein unetan jaso ahal
izango dituzu** banaketako mahaian
uztailaren **14ra** arte, eta **uztailaren
17tik aurrera Baluartean**.

Oliba-olioa	6.600	Sukaldeko baskula	2.045
Oliontzia	2.800	Irabiagailua	330
Olibak	8.400	Bizikleta	89
Kuxin elektrikoa	199	Bol txikia aperitiborako	5.900
Bluetooth bozgorailua	200	Poltsa termikoa	2.981
Oratzailea	8	Poltsa berrerabilgarria	2.800
Aperitiboa bi lagunentzat	11.200	Sukaldeko potea	5.604
Robot xurgagailua	71	Metalezko potoa	1.160
Hegaluzea, oliba-oliotan	5.192	Mahaiko botila	5.012
Bluetooth aurikularra	250	Uretarako botilatxoa	6.192
Arbelezko erretilua aperitiborako	5.604	Kakao-hautsa	5.600
Portzelanazko erretilua	1.200	Kafea	5.600
Erretilua	1.427	Kapsulako kafe-ontzia	150
Banderillak	5.600	Erreminta-kaxa	300
Muserako kartak	3.000	Gourmet salda	5.603
Barkilloak	5.600	Trukatu beste txartel batekin	6.657

Gozokiak	8.400	Bainurako gela	2.800
Kargagailu anizkoitza	5.600	Txapela	278
Saskitxoa duen ontzia	1.302	Izozkia bi lagunentzat	8.400
Xanpua	468	Ur-irakingailua	150
Txaskis	5.600	Urdaiazpikoa	1200
Txokolatea	8.400	Lacasitos	2.808
Txorizoa	5.600	Txorizo lata, sagardo erara	5.600
Autoa	2	Esne-ontzi txiki zuria	4.426
Koktela edo moktaila bi lagunentzat	1.000	Lekaleak	8.400
Otordua bi lagunentzat	150	Haur-liburua	100
Esku-baltsamoa	2.140	Liburua	100
Barazki-krema	2.800	Gorputz-lozioa	1.402
Mahai-tresneria	648	Laberako eskuzorroak	2.800
Kubo magikoa	1.033	Mahai-zapia	226
Amantala	2.814	Argazki-markoa	3.974
Dozena bat txurro	2.800	Eskola-materiala	1.378
Entsaladera	5.608	Marmelada	5.600
Zinemarako sarrera bi lagunentzat	5.600	Motxila	4.219
Zainzuriak	5.600	Gozogintzako moldea	5.600
Egonaldia hondartzako apartamentuan	20	Morenitoak	8.400
Zukugailua	300	Muztioa	5.600
Laberako azpila	5.598	Nezeserra	1.400
Eguzki-eklipsea ikusteko betaurrekoak	3.100	Bainuetxe-paketea bi lagunentzat	150
Galletak	5.600	Paella-ontzia	200
		Hondartzako palak	5.619
		Sukaldeko oihalak	900

Zapi gorri brodatua	5.600	Tomate frijitua	8.400
Aterkia	5.600	Txigorgailua	315
Artisau-pastak	6.700	Erresumako txirikorda	5.600
Patea	8.400	Kabinako trolleya	100
Pilota puzgarria	5.616	50 hazbeteko telebista	2
Ozpinetako pepinoak	5.600	Sukaldeko tresna	5.616
Pikillo piperrak	5.600	Baxera	90
Bota-eramatekoa	248	Leclercen erosteko txartela	100
Ezpain-babesa	3.450	Edalontzi termikoa	1.403
Birringailua	2.800	Edalontziak	5.912
Tuperra	5.604	Perfumatutako kandela	6.492
Horma-erlojua	2.796	Nafarroako barazkiak	8.400
Ibilbidea buggyan, bi lagunentzat	60	Ozpina	5.597
Sandwich-ontzia	300	Ardoa	8.400
Bidaiarako ile-lehorgailua	500	Otazu upeltegirako bisitaldia eta dastatzea bi lagunentzat	65
Pilota-sorta	316	Erriberriko gaztelurako bisitaldia bi lagunentzat	300
Kikara-sorta	39	Iruñeko katedraleko museorako bisitaldia bi lagunentzat	1.000
Perretxikoak	2.800	Mendukilo kobazulorako bisitaldia bi lagunentzat	300
Smartwatch	250	Tomate-zukua	3.000
Aperitiborako taula	197		
Aulki tolesgarria	1.406		
Arroz-ontzia	100		
Gosari-katilua	8.400		
Termoa	2.800		
Guraizeak	5.616		
Toalla pareoa	2.700		

ZOZKETAK

7 zozketa, Europako hiri baterako bidaia eskuratzeko bi lagunentzat (Erroma, Istanbul edo Amsterdam)

7 zozketa, bizikleta elektriko eskuratzeko

7 zozketa, Port Aventura-ra 4 sarrera (bi helduenak eta bi haurrenak) eta bi gautarako ostatua eskuratzeko

7 zozketa, Puy Du Fou parkerako sarrerak eta Toledon bi gautarako ostatua eskuratzeko bi lagunentzat

Zozketak Tonbolan egingo dira, jendaurrean, ekainaren 12an eta 26an, uztailaren 3an (ostiralak), eta uztailaren 14an (asteartea), 19:00etan.

Zenbaki irabazleak honela argitaratzen dira:

Tonbolan bertan

www.caritaspamplona.org
webgunean

Caritasen sare sozialetan

LEGE-OINARRIAK

IRUÑEKO "CARITASEN TONBOLAREN" LEGE-OINARRIAK

1. ANTOLATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Tonbola nagusiko modalitatearen jokoari (sarien zenbateko osoa 1.800 eurokoa edo handiagoa da) aplikatzekoak zaizkion baldintzak dituzte oinarri hauek. **IRUÑEA-TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CARITASEk** (hemendik aurrera,

ANTOLATZAILEA) antolatutako jokoa da, R3103164D IFK du, eta helbidea IRUÑEKO San Anton kalearen 8an, behean (31001, Nafarroa).

2. JOKOAREN ZEHAZTAPENAK

Abian jarriko den tonbola jendaurrean erakusten diren askotariko objektuen zozketa bat da, prezio jakin batean txartelak eskuratzen dituzten pertsonen artean egiten dena. Txartel horiek adierazita dute eskuratuko den saria. Zozketaren modalitateak hauek dira:

- Ekitaldian bertan eman daitezkeen sariak.
- Puntuak batzeagatik ("reúna" hitza duten txartelak) eskuratu ahal direnak.
- Aldian behingo zozketen bidez lor daitezkeenak.

Tonbola kokatuko den esparru berebieran helburu horretarako egokitutako salmenta-postuetan eskuratu ahal izango dira txartelak. Salmenta-postu horietan ANTOLATZAILEko boluntarioek emango dute arreta.

Bi milioi zortziehun mila txartel (2.800.000) jarriko dira salgai.

Ez dago mugarik pertsona bakar batek eros ditzakeen txartelen kopuruan, eta ordaintzeko eskudirua edo txartela erabili ahal izango da, salmentaren arduradunak izango diren boluntarioek edukiko duten datafonoaren bidez.

3. EGITEKO TOKIA ETA DATAK

Tonbola Iruñeko Konstituzio plazan egongo da kokatuta, 2026ko maiatzaren 30etik uztailaren 14ra, bi egun horiek barne.

Tonbolarekin batera paraleloki egiten diren zozketak 2026ko ekainaren 12an eta 26an, eta uztailaren 3an eta 14an egingo dira, 19:00etan, behin lortu denean txanda bakoitzeko 400.000 txartelen salmenta.

4. PARTE HARTZEKO MODUA

Oinarri hauetan adierazitako debekuetako bakar baten pean erori gabe, txartel bat eskuratu duen eta TXARTEL BAKOITZEKO EURO BAT (1) ordaindu duen edozein pertsonak parte hartu ahal izango du tonbolan.

Jarduteko erabateko gaitasuna duten eta adinez nagusiak diren pertsonen erreserbatuta dago tonbola honetan parte hartzea, eskusiban. Horrenbestez, 18 urtez azpiko adingabeek ezin izango dituzte txartelak erosi.

Era berean, tonbolan parte hartzetik kanpo gelditzen dira ANTOLATZAILEko langile edo boluntario guztiak. Hartara, arau hori ez betetzeak berekin ekarriko du lortutako saria galtzea.

5. SARIAK

Hiru sari-mota egongo dira:

- Tonbolaren mostradorean, horretarako egokitutakoan, berehala ematen diren sariak.

- Zozketetan saritutako pertsonen emandako sariak.

Ez dira onartuko txartel sarituak, baldin eta faltsututa, kalte eginda, hautsita edo irakurtezin badaude.

Txartelak publikoari saltzeko eta sariak banatzeko ordutegiak hauek izango dira: 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era, astelehenetik ostiralera, eta 10:30etik 14:00etara eta 17:30etik 21:00etara, larunbat eta igandeetan, aurreko atalean aipatu den denboraldi osoan, sanferminetan izan ezik, jaiegun horietan 10:30etik 14:30era eta 18:00etatik 00:30era izango baita.

- “Reúna boletos como este y canjéelo por un premio” (hau bezalako txartelak bildu eta trukatu sari batekin) adierazpidea duten 5, 10 edo 20 txartelen ordainetan emandako sariak. Tonbolaren mostradorean trukatu ahal izango dira, horretarako egokitutakoan.

Tonbolako eta zozketetako sariak, beren prezioarekin edo merkatu-balioarekin batera, eta bai gordeta edo erakusgai dauden tokia ere, oinarri hauetako 1. eranskinean zerrendatutakoak dira.

Tonbolako sariak, kargarik gabe, txartel irabazlea emateko ekitaldian emango dira, eta, egokia bada, ANTOLATZAILEaren eta saridunaren konturakoak izango dira dagozkien zerga-betebeharrak. Sustapeneko irabazleek sariak eskuratzea une bakoitzean indarrean dagoen zerga-araudian xedatuta dagoenaren mende egongo da. Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga (PFEZ) arautzen duen zerga-araudiaren arabera, joko, lehiaketa, zozketa edo ondasunak edo zerbitzuak saldu edo sustatzeari lotuta dauden ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik emandako sariak PFEZaren atxikipenaren mende daude, sariak emateko unean indarrean dagoen zerga-legediaren arabera, baldin eta sariaren balioa 2.500 eurotik gorakoa baldin bada.

Beren ezaugarri jakinengatik tonbolaren instalazioetan trukatu ezin diren sariak hornitzailearen beraren establezimenduan emango dira, haren irekiera-ordutegien, kokalekuen eta gainerako baldintzen arabera. ANTOLATZAILEarena ez den edozein arrazoiengatik ez badago aurreikusitako saria ematerik,

ANTOLATZAILEak beste batekin trukatzeko eskubidea izango du, balio berekoa edo handiagokoa izango den sari batekin.

Tonbolan edo zozketan, egoki denaren arabera, saritutako txartela dutenei emango zaie saria.

Irabazleak lortutako sariari uko egiteko eskubidea edukiko du, baina ezin izango du inolaz ere beste batekin trukatu edo bere balioa eskatu eskudirutan.

ANTOLATZAILEa salbuetsita geldituko da sariarekin edo hura gaizki erabiltzearekin lotutako edo hartatik eratorritako edozein motatako erantzukizunetatik.

6. ZOZKETAK EGITEKO MODUA

Zozketan parte hartu ahal izango dute bertan parte hartzeko eskubidea esleitu zaien txartel guztiek, zenbaki bat eta zozkatzeko sari jakin bat izendatzearen bidez.

28 zozketa egingo dira, zehazki, zozketa bat 100.000 txarteleko. Txanda bakoitzean saldutako 100.000 txarteletatik, 60.000 txartel zozketara bideratuta daude eta 0 eta 59.999 arteko zenbakiak dituzte. Zozketa egiteko bost loteria-ontzi edo ontzi daude, eta haietako bakoitza saritutako zenbakiaren bost zifretako bakoitzari dagokio. Hamar milakoen ontzian 6 bola sartzen dira (0 eta 5 artekoak), eta gainerakoetan, 10 bola bakoitzean (0 eta 9 artekoak).

Tonbolaren arduradun batek egingo ditu zozketak, eta taldeko beste batek lagunduko dio, eta haiek aterako dituzte bolak.

Zozketak egiteko egunak tonbolaren instalazioan bertan kokatutako kartel batean iragarriko dira, eta bai erakundearen webgunean ere: www.caritaspamplona.org.

Aurreikusitako sariaren irabazlea izango da oinarri hauetan ezarritako merkaturatze-aldian

erositako txartelaren legezko jabea, izendatutako pertsonak ateratako zenbakiarekin bat datorren txartelarena.

Ondoz ondoko zozketetan saritutako zenbakiak tonbolaren instalazioan bertan kokatutako kartelean jarriko dira erakusgai, eta bai erakundearen webgunean eta sare sozialetan ere.

7. SARI-EMATEAK ETA EPEAK

Jokoan dauden sari guztiak-hau da, zuzenekoak, "reúna" hitza dutenak biltzearen bidez lortutakoak eta zozketa bidez esleitutakoak – horretarako egokitutako tonbola-mostradorean hartu ahal izango dira berehala (5. atalean, laugarren paragrafoan, aurreikusitako salbuespena izan ezik), eta jasotzeko azken eguna 2026ko uztailaren 14a izango da. 18 urtetik gorako pertsonen baina ezin izango zaizkie eman sariak.

Egun horren ondoren, txartel saridun bat duten pertsonen ANTOLATZAILEak horretarako egokitutako instalazioetara joan beharko dute, 2026ko abuztuaren 14a baino lehen (aurreko paragrafoan aipatutako salbuespena izan ezik, 5. atalean, laugarren paragrafoan, aurreikusitakoa).

Behin igaro direnean goian adierazitako epeak, ANTOLATZAILEari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ez bada saria ematerik izan, sari hori erreklamatzeko edozein eskubide indargabetuko da.

Emateko epe horiek igaro eta gero, sariak jaso gabe geldituta, hutsik edo eman gabe geldituko dira eta ANTOLATZAILEaren titulartasunaren pean.

Sariak hartzeko azken eguna alde batera utzirik, sari jakin batzuek kontsumitzeko gehieneko data bat eduki ahal izango dute, txartelean bertan adierazita egongo dena eta, hartara, behin hura igarota, delako sariaz gozatzeko eskubidea galduko da.

8. ANTOLATZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

ANTOLATZAILEak ez du erantzukizunik bere gain hartuko:

- Irabazleak sariaz egin dezakeen erabilerarengatik.
- Tonbola honen kariaz beste enpresa batzuek eman ditzaketen zerbitzuengatik.
- Saria gozatzearen ondorioz eta harekin lotuta, irabazleak edo haren lagunak izan dezakeen edozein kalte-galerarengatik.
- Egotzi ezin zaizkion kausengatik gertatutako errore edo akatsengatik. Irabazleari sari osoa edo zati bat gozatzea eragotzi ahal dioten ezinbesteko kasuengatik ere ez du erantzukizunik hartuko ANTOLATZAILEak, eta aipatutako kasuetakoren bat gertatzen bada, salbuetsita egongo da erantzukizun orotatik.

9. DATUEN BABESA

Datuen babesaren gaian indarrean dagoen araudiaren arabera, hau jakinarazi behar dizugu.

Tratamenduaren arduraduna:
IRUÑEA-TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CARITAS (hemendik aurrera, ANTOLATZAILEA), R3103164D IFK duena eta helbidea IRUÑEKO San Anton kalearen 8an, behean (31001, Nafarroa).

Tratamendua eta helburua:
Antolatzaileak jakinarazi behar die irabazle diren parte-hartzaileei zozketa bateko saritu izateagatik borondatez ematen dituzten datu pertsonalak saridun horiei sari-ematea kudeatu eta gauzatzeko xedearekin tratatuko direla.

- Lege-oinarria: interesduna alderdi den kontratua gauzatea, DBAOren 6.1.b) artikulua (lege-oinarri hauek).
- Kontserbazio-epaia: aurretik adierazitako xeda lortzeko hertsiki beharrezkoa den epean eta, indarrean dagoen araudia betez, arduraduna tratamendurako legezko zat jotzen dagoen bitartean.

Hartzaileak: jakinarazi behar dizugu, oro har, zure datuak ez zaizkiola beste inori utziko, legeak ezartzen badu edo berariazko baimena eman baduzu izan ezik. Nolanahi ere, komunikazio eta/edo transferentzia batzuk sustapenari aplikatzeko zaion araudiak inposatuta egon daitezke, adibidez, zerga-araudiak (zure datuak zerga-ogasunei jakinaraztea).

Halaber, sariak behar bezala kudeatu eta emateko, baliteke beharrezkoa izatea irabazleen zenbait datu beste batzuei jakinarazi edo helaraztea. Jarraian, datuak beste batzuek

jakinaraztea beharrezkoa izan litekeen xedeak ageri dira:

- Tonbolaren arduraduna ez den erakunde bat arduraduna den sariaz gozatzea. Kasu honetan, irabazlearen datuak jakinaraziko zaizkio saria emateko ardura duen enpresari, enpresa horrek irabazlearekin koordinatzeko sariaz gozatzea.
- Irabazleei sariak emateko ardura enpresa garraiolaria.

Eskubideak eta horiek gauzatea:

Tratamendurako bildutako datu pertsonalak direla-eta, haiek eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta eramangarritasunekoak gauzatzeko eskubidea duzu. Halaber, jakin ezazu zenbait inguruabarretan eskubidea izango duzula zure datuen tratamendua mugatzea edo aurka egitea eskatzeko. Kasu horretan, arduradunak tratamendua etengo du, eta soil-soilik gordeko ditu, hala ezartzen duen araudi-betebeharren bat badago edo batera gerta daitezkeen ekintzak preskribatu bitartean.

10. IRABAZIEN ERABILERA 11. ZABALKUNDEA EGITEA

Tonbola egitetik lortutako irabaziak **IRUÑEA-TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CARITASen** beraren jarduerak finantzatzera bideratuko dira.

Hainbat hedabideren bidez iragarriko da tonbola egingo dela, egin aurretik.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Tonbola honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea bere osotasunean. Oinarriak Iruñeko Elkargoko María José Bustillo Fernández notarioaren aurrean gordailutu dira. Parte-hartzaileek oinarri hauek kontsultatu ahal izango dituzte lehiaketan eta zozketan notario-artxiboan (ABACO) www.notariado.org webgunean eta ANTOLATZAILEaren webgunean.

Salbuespenez, eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, ANTOLATZAILEk oinarri hauek edozein unetan aldatzeko eskubidea edukiko du, eta bai beste baldintza orokor edo partikular batzuk, erabilera-erregelamenduak edo aplikatzekoak diren abisuak. Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik edo desadostasunik badago, ANTOLATZAILEaren irizpidea gailenduko da.

Erreklamazioen aldia bukatuko da sariak ematea amaitzen denetik aurrera 5 egun natural igarotzen direnean, hau da, 2026ko abuztuaren 19an.

13. LEGEDIA ETA FORUA

Ekintza honi aplikatzeko legedia Espainiakoa izango da. Dokumentu hau interpretatu eta gauzatzetik erator daitezkeen eztabaidetarako, berriz, eta foru-gaian alderdiek xedatzea mugatzen duen araurik ez dagoen bitartean, Iruñeko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari egingo zaio men (Nafarroa), egokitzen ahal zaien beste edozein foruri berariaz uko eginda. Arauren batek debekatzen badu forua finkatzea adierazitako kasuan, ez jarritakotzat hartuko da eta lege-oinarrietako epigrafe hau aplikaziorik gabe geldituko da.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 30ean.

Notarioaren aurrean gordailututako oinarriak:
María Jesús Bustillo notariotza.

BIZITZAK ALDATZEN DITUEN TONBOLA

 ***Cáritas***
Diocesana de
Pamplona - Tudela

Lagundu hemen:

Iruña: San Antón, 8 / 948 225 909

Tutera: Alberto Pelárea, 2 / 948 826 856

www.caritaspamplona.org

